



Honako iradokizuna bide berria bideratzen da.
Pase el presente escrito al Negociado de
..... para su trámite
2017 MAR: 08
LASARTE-ORIA
IDAZKARI OROKORRAK



KEXAK ETA IRADOKIZUNAK UDALARI AURKEZTEKO MUGIKORRARENTZAKO APP BAT EGITEA

Honako mozio honen bidez, EAJ /PNV Udal Taldeak proposatu du, herritarrek euren kexa eta iradokizunak modu arin eta eraginkorragoan jakinarazi ahal izateko, mugikorrarentzako aplikazio bat abiatzea.

Gasteiz eta Bilbok badute jada zerbitzu hau. Herritarraren esku baliabidea ezartzean datza, eta plataforma erraz, argi eta erabilgarri honen bidez Udalaren eta herritarren arteko harremana erraztuko da.

Aplikazioa euskarri digital guztietan dago eskuragai, eta herritarren parte hartzea da helburua. Izan ere, kexak eta iradokizunak bidali ahal izango dituzte, eta horietan argazkiak eta gorabeherarik gertatzen den leku zehatza eransteko aukera izango du. Horrela, edozein herritarrek salaketak "unean bertan" egin ahal izango ditu: errepidean zulo bat badago kono batek estalita, haurrentzako parke bat egoera txarrean badago...

Azken finean, gardentasun eta parte hartze kontzeptuak sustatzean datza, gure herrikideek gero eta gehiago erabiltzen dituzten teknologia berrien bitartez. Hori guztiagatik, EAJ/PNV udal taldeak honakoa eskatzen du:

- 1.- Telefono mugikorrarentzat aplikazio hau abiatzea, udala herritarrengana hurbiltzeko eta kexak eta iradokizunak egiteko baliabide gisa erabiltzeko.

